

*2018ko maiatza*

Negozio ideia bat duten ekintzaileei zuzenduriko “Ekin pausoz pauso” ikastaroaren edizio berri bat antolatu du Azaro Fundazioak maiatzaren 29tik ekainaren 6ra.

Normalean ikastaro honen bi edizio egiten dira urtean, bat lehen seihilekoan eta bestea bigarrean, baina aurten salbuespen bat egitea erabaki da eskualdeko ekintzaileen eskaria asetzeko. Maiatzaren 7tik 16ra ospatu zen edizioaren ostean, maiatzaren 29an hasi da bigarrena, enpresa martxan jarri nahi dutenek urte bukaerako ediziora itxaron behar ez izateko.



*(Egin klik irudian gehiago jakiteko)*

Izan ere, Markina Xemeingo Berrikuntza Gunean egiten den “Ekin pausoz pauso”ko parte hartzaileek enpresa-gestio arloko oinarritzko kontzeptuak lantzen dituzte, hala nola, arlo komertziala, arlo ekonomikoa, izaera juridiko ezberdinen ezaugarriak, sorrera tramiteak, lan arriskuen prebentzioa, ingurumena...

Gainera, ikastaroa egiterakoan Bizkaiko Foru Aldundiaren “langabezia eta baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonei zuzenduriko diru-laguntza” eskatzeko aukera ere zabaltzen zaie ekintzaileei. Halaber, formazioaz gain bakarkako aholkularitza ere jasotzen dute Azaro Fundazioaren eta Leartibai Garapen Agentziaren eskutik, beraien negozio ideien bideragarritasun planak lantzeko.

Aurtengo aldaketak argi erakusten duenez, ekintzailetzaren bideak gero eta arreta gehiago

pizten du gure eskualdean.